

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak funtzionatzeko behar dituen funtsezko baliabideak honako hauek dira. Baliabide fisikoen artean, pilula-kutxa digitalaren prototipoak eta produkzio-unitatea ditugu, baita Leioan kokatutako lonja bat, gure bulego eta biltegi bezala erabiliko dena. Bulegoan ordenagailuak, inprimagailuak, eskaneatzaileak eta bulego-materiala egongo dira, baita komunikazioa bermatzeko telefonoak eta abiadura handiko Internet.



Baliabide intelektualetan produktuaren diseinu teknologikoa eta software propioa daude, gure marka erregistratua "Pill-Mind" eta patenteen bidezko babesaren barne, pilula-kutxa digitalaren ezaugarri teknologikoak defendatzeko.



Giza baliabideen arloan, taldearen kideek dituzten ezagutzak eta esperientzia kontuan hartu behar dira: (izen guztiak adibideak dira) Peio diseinu teknologikoan eta softwarean, Ane salmenta, marketin eta antolaketan, eta María administrazio eta finantzetan. Beharrezkoa izanez gero, langile berriak kontratatuko dira atal bakoitzaren beharren arabera.

Azkenik, finantza-baliabideen artean, hasieran taldekideen aurrezkiak eta ekarpen pertsonalak erabiliko dira, eta etorkizunean finantzaketa osagarria lortuko da probak, inbertsioak edo diru-sarrera komertzialak bitarte.